



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: || IX Urtea || 1927'ko Epaila || 10096 Zenbakia || :—:

Seigaren eta Bederatzigaren agindua

Si quis autem templum Dei violaverit, disperdet illum Deus. Templum enim Dei sanctum est, quod estis vos. (I Cor III-17)
Itork Jaungoikoaren jauretxea zikinduko ba-lu, Jaungoikoak ondutuko luke. Jauretxea santua baita. ta ori zuek zerate.

Gaiztakeri ontara deramaten bideak (Iaraipena)



ALPERKERIA. Gaiztakeri askoren erakuslea da, esan du Jaungoikoak. (Ecli. XXXIII-29). Naikeri txar eta zikin-kerien ama da alperkeria (Jerónimo S.)

Gurikeria, janean, edanean, soñekotan eta bizeran. Argatik esaten zien Pablo Apostolu santuak Erroma'tarai: Egunez bezala gabiltzen, ez jan-edan geigietan; eta Efeso'arai: etzazutela ardoz bete na izan ortan dago-ta loikeria. Gregorio santuak argatixe esan zuan: ardoak loikeria derama, eta asetasuna ta mozkorkeria dan lekuan, loikeria nagusi da.

Ezekiel Igarle santuak esaten digu nondik etofi zan Sodoma'tafen gaiztakeria: Ona, auxe izan zan Sodoma'ren gaiztakeria... Afokeria, ogi eta gauza guzien ugaritasuna, eta bere ta aren umeen alperkeria (c.XVI).

Irakurgai, liburu ta paper txarrik. Liburu txafak irakurtzea (leitzea)

kolkoan suge pozoindua sartzea dala esan du Jeronimo santuak. *Eta nork izango du biotzik lo egiteko orelako suge galgaría bere gorpu:zean duala? dio berak.*

Elizak ezaguturik liburu oiek zein kalte izugafiak egin dezaketen Trento'ko Eliz-Batzafe nagusian debekatu zuten kristauen oiturak efaz gaiztatu dezaketen libururuk kristauak leitzea. Eroma'ko Kristau-ikasbide (Catecismo Romano) Batzafe berofek egiñaziak esaten du, loikeria geienik bafatzen duten gauza bat liburu txafak dirala. Askoz lendik Nizea'ko Eliz-batzafeak gaitzetsirik zeuden liburu lizungafi oiek.

Bofomeo'tar Karlos santuak nai zuan Apaizak ardura aundiz baztartzea alako liburuak kristauen eskuetatik eta gañera bere Eliz-bafutiaren Ikustaldia egitean, ari esatea baldin ba-zan alakorik bere etxean zeukan kristaurik.

Bildur izan, ba, kristaua, elizaren baimenik gabeko libururik ez dezazun eskuetan artu, batez ere *novelak* ba-dira. Sugea belarpean dago lo.

Bilera eta ikuskariak. Gaurko bilera gizonezko ta emakumezkoak nasika sartzen diran geienak, afisku ez txikiak dira garbitasunarenzat. Berroietara eramaten diran jantzia, ango jolas edo izketaz eta maiz edo safi ematen diran gaiztabideaz.

Ikuskari guziak ez dira gaiztoak, baño gaurkoan leku bakanetan ematen dituzte geienean afiskurik gabe ikusi ditezkenak. Eta ori batzuetan ikustera ematen diran gauzagatik, bestetan ango jantzieragatik, bein ango kantu lasaiengatik edo ango apaingafi edo dantza lasaiengatik.

Soissons'go Eliz-batzafeak dio: ez dezatela uste izan siñistedunak nolanaiko ikuskarietara joatea zilegi dutenik. Batzuek onak ba-dira, baita ere ba-dira oitura onen eta elizkoitasunaren kaltezoak.

Santuak deitzen dituzte: Griña gaiztoen janaria. Onbidea edo birtutea gaitzesten eta gaiztakeriaren maitetasuna ta ortan ibiltzeko bideak erakusteko etsaiak daukan lekua.

Efomeriak, mendigoizaleak eta ibilketak. Gaurkoan efomeri geienak egiten diran eran, afisku aundia dira garbitasunarentzat. Gurasoak artu bear liokete kontua beren gazteai, baño geienean bakafik uzten zaie joaten. Efomerira ez dira asko santuagatik joaten, ezta ere beren pekatuen barkazioa irixteagatik, baizik bideko ta ango izketa eta jolas edo jostaketagatik. Ea, ba, zer afiskua dan, bide luzean, mendi tartean eta ainbeste gazte bakafik dijoazenean, baseliz edo ermitetara irixten diranean, batzuetan, elizbafenean ere kristau onari dagokion begiramenduarekin ezin egonazi ba-dira; ta andik atera orduko ergelkeri, nabarmenkeri ta dantza itxura gaiztokoa Apaizak ere ezin galazi ba-dute. ¿Zer da au? Aingeruen garbitasuna gordezko tokirik oberena ez beintzat.

Efomerietan dagon afiskua bera ta askotan geitua dago ba gaurko mendigoizale ta ibilketari mutil eta neskak nasian izaten dituzten guzietaz. Asieran ez dira ain bide gaiztoz asten, baño bai laxter esan duten ortara itzultzen.

Gauza oietan afixkurik ba-denik ere iruditzen etzaizutenak irakufi zer kontua artu bear zaion neska gazteari: Badituzu alabak? Gorde dezazu

beren gorputza... Ecli. VII--26). Berez gizonen begietatik iges egiten ez duan alabari kontu ar zaiozu, afixkurik sortu ezkeru, bere burua ondatzeko bildufaz. Aren begien lotsagabekerietatik gorde; ta ez afitu zure esan onak



Marta ta Mariá Magdalena Jesus'ekin

ez ba dizkitzu ongi artzen. Egañiz dagon bidariak 'bezala, idekiko du 'bere agoa edozein ur edateko, urbilen afapatzen duan edozein uretatik edango du, edozein esolaren ondoan eseriko da ta edozein gezi, dardai edo fletxari idekiko dio gezitokia, bera galdu arteraño (Ecli. XVI-13-13). Itz auek guziak Jaungoikoarenak dira, ba, ta gurasoentzat eta edozein gazterentzat ere ika-ragafiak.

Gizonezkoak zer bildufarekin ibili beara daukan ikusi Jaungoiko beraren beste itz auetan; ez ditzazula zure begiak neskaten batengan ezafi bere edertasuna ez dedin zuretzat erorbidea izan. Baztatu zure begiak emakume apainduagandik ta ez egon besteren edertasunari begika geldi. Emakumeen edertasunak asko galdu ditu. (Ecli. IX-5 eta). Emakume kantari ta dantzariarekin etzaitezela maiz egon eta etzaiozula entzun, etzaitezen galdu bere txoragafitasunaz (Ecli. IX-4).

Argatik Job santuak, bere buruz esaten digu tratao egiñik zeukela bere begiakin neskaten bati ez begitzeko (Job. XXXI-1).

Ortik ikasi zazu, ba, lotsatia izaten, orixe da-ta garbitasunaren esirik oberena.

Dantzak. Euskaldunak ba-ditugu dantza onak eta alakoak dira gizonezkoak edo emakumezkoak bakafik dantzaten diran oiek.

Ba-ditugu baita gizonezko ta emakumezkoak batean dantzatzen diranetatik gaiztotzat geienean eman ez ditezkenak, baño beroietan ere sortzen dira afiskuak, batez ere dantza afe ta ondotik.

Erdal-efitik sartu diran beste *vals*, *polca* eta ofelakotaz Sylvain guziz Agurgafiak dio: «ez dira on eta berez guziz afiskutsuak dira, eta afisku ori aunditzen dute beroietan erabiltzen diran soñekoak.» Villarino-Ugarte Jesus'en lagundikoak dio: «Dantzak... gaur geienean egiten diran bezala gaiztoak dira, eta guziz afiskutsuak, oietako afisku ugariak. Gaurko dantzatzeko era guziz afiskutsua da, ta ain afiskutsual, batzuek uste bai dute pekatu lafia dala atsegin lotsagafia sortzeko afisku urbilean jartzen dutelakoan». Alaxe erakutsi du Iruña'ko Gotzai jaunak dantza lotu Napafoan egiten diranetaz.

Dantza askatuan ibili liteken euskaldunak ortara jotzer badu, ea zer bilatzen ote duan dantza ortan?

Gorde dezagun, kristauak, aingeruen antzeko ta Jaungoikoaren adiskide, aur maite ta bizileku egiten gaituan garbitasuna ardura aundiaz beti.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

TXISTU

Izen polit onekin argitaratu du ARGIA'k ume-aldizkingi edo efebista oso alai ta atsegiña.

Bagenuen ume-aldizkingiaren bear aundia ta ARGIA asteroko ederak argitaratu digu. Urte asko iraungo al du. Polita da ta mamitsua. Amabostero bein ateratzen da. Zortzi ofialde aundi ditu: bost, marezki edo dibujoz beteak. Gañeko bi ofialdeak bi tintaz egiñak daude Bañuan badu kristau-dotriña-sala ta ipuiak. Euskaldun'guziak erosi bear luteke bere umeentzat.

5 pezetaz egin zaiteke ofen arpidedun edo suskritore urte baterako.

Saltzen da ARGIAREN etxean: Garibai, 28 = Donostia.

Ama Birjiña, gure Ama.

«Ecce Mater tua».



APURÉN erdian Jesus zintzilika gurutz-gañetik. Atsaldeko irurak ziran. Eguzkia ilundu-ta... Ixil-ixilik eta ilunbeta ark ikaratuak, zer egin ez-takitela etxeronz dijoaz denak.

Orduan, Jesusen adixkideak, uste edo konfiantza geyago artuaz eta trabarik gabe, urbildu ziran bere Jesus maitagafiagana, gurutzearen ondoraño.

Ona emen S. Juan Ebanjelariaren itzak: «Txutik, Jesusen gurutzapean, zeuden Jesusen Ama, onen aizpa Maria Kleofas eta Maria Madalen».

Elizak ere esaten digu, Ama samindu ura, negañez urtzen, baño txutik eta biotzdun, an zegola, bere semea zintzilik zaukan gurutzearen ondoan.

Ezta afitzekoa Jesusen Amak negar egitea. Baño etzuan zentzua galdu, batzuk gaizki dioten bezala; bazakian ala baño, Aitak nai izan ezpala iñork etzezakiola bizia kendu, eta ofengatik, naiz biotza erdibiturik, «egin bedi zure naya» esanaz, Aitari gogoz eman zion Semea. Baño negar etzuan egingo bada, Seme bakar ura, semerik onena, Jangoikoa, bekatar guzien utsegiteak bere gain artu, ta, ayetarik gaixtoena bezala erabiliä ekusiz? Ura izan zan, Si-

meon igarlek (profetak) esan zuan bezala, alde batetik bestera zulatu zion ezpata zofotza.

Orduan esan zitzaken Ama naigabetu ark, Jeremias igarlearen itzak:

«¡A zuek, bide ontatik barna zoazten oyek!, gelditu eta begira, nere oñazea bezalako oñazerik bai ote dan.»

Ala ere, gutaz oroitzen da; eta gu salbatzeagatik eskeintzen dio Jan-goikuari, ez bakarik Semearen odol ugari eta aberatsa: baizik baita bere biotzak artzen ditun oñaze bizi ayek.

Auek guzik ala izan ta, Jesus ere oroitu zan beafez bere Ama maiteaz. Ekusirik bada gurutz ordoan Maria bere Ama eta Juan ebanjelaria, idikitzen ditu begiak, eta Amarengana itzuliaz, ezti, ezti esaten dio: «Andrea,



Neketako Ama Birjina.

ofa zure semea.» Eta gero ikasleari: «Ofa zure ama». ¡Ura Ama Birjiñaren naigabea! ¡Nola biotza lafituko zioten itz ayek!

Jainkoaren Semearen orde, gizon baten semea ematen dio. ¿Zer egingo ziñukete zuek, amak, eriotzeko orduan zuen seme bakafak, afen orde bere adixkide bat utziko balizue? ¡Ura zuen begien negafa! Baña, era be-rean, zeren biotzeko puska afek emana zalako, gogoz artu ta, beti seme egiazkoa bezala maite egingo ziñukete gazte ura.

Auxe bera egin zuan Jesusen Amak ere: Negañez, baño gogoz artu zuan bere Semetzak Jesusen ikasle maiteena; S. Juanek befiz, pozik baño pozikago, beti maite izan zuan Maria bere Ama bezala, eta bizi zan bitartean, aren seme eta lagun zintzoena izan zan.

Gañera, badakizue zer dioten Elizako Guraso San.: Juan deuna, ordu artan, gu guzian izenean, orde, zegola. Ofengatik bada, orduntxe berean agindu zigun Jesusek guretzat artzeko bere Ama doatsua; eta bere Amari, gu semetzat artzeko.

Maita zagon bada, gure Ama samintsua, eskatu zayogun, Jesusi beñiere naigaberik ez emateko laguntza, iru Agurmariak goizero ta gabero esan zazkiogun, eta tentazio guzitan deitu zayogun.

¡Ama Neketsua! gutaz efuki, gu zutaz efukitzen garan bezala.

A. I. M. A.

Semearen naya

(Nire amari bere urtebetetze egunean)

Ama, odei-tartetik
ilargi itunak
baltzen ditu bere
izpi legunak,
ta itxaso barearen
gain urdinean
dirdits-egiten dute
leyar (1) gañean
eguzkiak bezela.
¡Oi! itxasoan
gogor ari diranen
biotz gogoan

ja ze maitasun-pozal!
ja ze kementa!
ilargi-izkitxu aubek
sartzen dutena!
Gau ilunean gogor
ludi-itxasoan
ari zeraden ofen
biotz-gogoan,
sortuko al ditu gaur
poz eta indafak
neufitz (2) aubetan diraits
dagin maitasun gafak.

Jauregi tar Koldobika.



(1) Leyara=Kristala.

(2) Neufitza=Bertsoa.

Ostiral Gurena

Jauregi'tar Luis'en olerkia (Z. A. 1922 gn. urt. 40 zenb.)

ELDUAYEN A.

Andante mosso

Egan di - jo - az txio ta txi - o E-narak mendi alde - ra

E-kaitz aufetik e - to-fi oi-dan O-dei beltza-ren an - tze-

ra. Jaunak dea - dar aun - di-bai da - gi

Bizi

Ta makurtu du bu - ru - a Deadar dagi lufak ta lotsez i-tza-li

da euz-ki sua. *pp* l - xil i - xi lik

loco
geld. *pp*

men-di-tik be-ra E-na-rak e-gan di-jo-az A-rantza ba - na.

de-ra - ma-le - la Ba-koi-tzak bere mo-ko - az.

geld. *FF* *8.a*



KANSU' RONTZ

Cantemus Domino



ERE irakurle maiteak:

Ilabete ontako aŕeneko egunean, denok osasun onez eta zoriontsu eldu giñan gure Kansu'ko mixiora: Gure bide luze gutzia ondo egin degu, Jainkoak gaitz gutietatik begiratu gaitu. Isfaeldafak bezela abestu genzake: «Cantemus Domino... Dux fuisti in misericordia tua populo ...et portasti eum in fortitudine tua ad habitaculum sanctum tuum».

Lenago, bideko neke, lapur, gudari, gorputzeko gaitzakatik, Kansu'ra ezin eldu izango ote giñan genduen bilduŕa, orain da gure poza. Lenago bildur eta afisku aundiagoak, aundiagoa oraingo poza.

Zeruko Argia'ren irakurleak, gogoz adituko dute noski, noiz, nundik eta nola eldu geran ain ufuneko toki ontara. Egunez egun, laburki bederen, esango dizutet. Laburki, zuek geyegi ez aspertzeagatik, ta bereziki. oso beta gutxi daukatelako, askoei idatzi, ta denai asko idatzi, ta txinaŕ izkuntza len-bai-len ikasi, ezin diteke.

AZAROA, 11. Gurekin batean Kansu'ra eramán bear ditugun kaja, baul ta gauza guztiak gertu ditugu. Danetan, eun baño geyago ditugu; ez dakit zenbat. Irurogei ta amalau, kaputxinoenak, ta gañerakoak, «Societas Verbi Divini» dalako mixiolarienak. Kaja ta baul oyekin, burni bidearen azkeneraño, gutako bi lagun di-

joaz. Araño elduak diranean, guri telegramaz ots-egingo digute. Gaur geroz, ez degu lasaitasunik gure telegramaren zai, guk ere len-bai-len abiatu nai genduke-ta.

Uste genduan, lau edo bost egunen buruan elduko zitzaigula; bañan ¡bai zera! Txinafak gauza guztiak patxada aundian artzen dituzte.



Lizarza'r eta Aldaba'r A. A. K. beren Gotzai Jauna erdian dutela.

AZAROA, 24. Gaur eldu zaigu, egun otan ainbeste aldiz aitatu degun telegrama. Atsaldeko ordu bitan artu genduan, eta laster gertutu genituan gure gauzak, afatseko amaiketako bultzia (trena) artzeko. Ez genduan egun bat ere galdu nai. Gabeko amafak eta erditako, amazapi lagun Yenchowfu'ko bultzi geltokian giñan.

Amaiketako bultzia, ordu bata arte etzan etofi. Bitartean, geltokian ederki oztu giñan.

Ozkarbi, aize oso otz, txinaf asko bultziaren zai, geyenak lufean pillaka etzanda lotan, batzuk lasai ta sendo kufunkatzen.

Alako batean, tronpeta edo adaf soñuak txinaf guztiak esnatu ta jaiki azi zitan, ta geroxego bultzia edo trena eldu zan.

Or txekofentzako izaten diran bezelako kotxe batean sartu giñan, geok eta gu-rekin batean, Kantsu'ko bidean lo egiteko generaman gure oe edo oatzeak, eta ez dakit zenbat maleta. Ta guk bezela, txinar guztiak, bear izan ezker, beren etxe guztia, berekin batean bultzian eramaten dute. Batzutan atetik ezin sartu ta atera

izaten da, jendea ta fardoak pillaka bai-daude atean, atetik bafungo aldean, eta kanpoko aldean. Orduan beren gauzak leyoetik botatzen dituzte.

Bide guztian izan degun kotxerik txafena gau ontan izan genduan. Izugafizko aize otza, leyo aundiak eta zabalik, leyañak puskatuta zeuden-da. Burni bide guztian, geok farol edo kandela bat piztu ezkerio izaten genduan argia; gañerantzean, gabez ilun izango gendukean.

AZAROA, 25. Goizeko seyak aldean eldu giñan Hsuchawfu'ra (Kiangsu'ko probintzian.) Nik ez nekian nere anketan, nere oñak ala bi izotz puska neuzkan.

Emen, lpar aldetik Ego aldera dijoan burni bidea utzita. Sortaldetik Sartalde-
ra dijoana artu bear genduan. Geltokian bi ordu bultziaren zai egonda, zortzita-
rako abiatu giñan. Bartko kotxea baño ohea da oraingoa; orko irugafengo mala-
koen antzekoa.

«Dia Societas Sancti Francisci Xaberii» deitzen daneko mixiolari italiñak, mixio etxe aundia daukate efi ontan. Beren gotzaya ere emen bizi da, ta apeztegi etxea ere emen daukate. Bat edo bi mutil katoliko bialdu zizkiguten geltokira, gu mixio etxera eramateko. Oyeratu giñanerako, goizeko ordu biak ba-ziran. Ala ere pozik, danetzako oyak eta gelak ba-genituelako.

AZAROA, 26. Goizeko zazpitan meza eman, gosalduta geltokira. Bedera-
tzi ta erditako bultzia, amaika ta erditan etofí zan. Oraingoa, gura oe edo oatze ta maletak gurekin batean eramane beafean, gu geok sartu giñan, *furgon* edo *mes-
sageries* izena eukan, kotxean.

Gure monjak edo lekaimeak eta beste bi europatañ, senar-emazte, frances itz-egiten zutenak, artu zuten personentzako zegoan gelatxo bat.

Egun ontan ederki ibili giñan. Exeritzeko aulkirik ez zegoan, baño al zan eran egoteko nai-koa toki bai.

Gabeko amaiketana eldu giñan Loyang edo Honanfu'ra. Emen ere, «Dia So-
cietas Sti. Francisci Xaberii» dalakoen mixio etxera bildu giñan. Ederki apaldu, lo egin, eta beñiro bultzira,

AZAROA, 27, LAUNBATA. Goizeko zortzi ta erditan abiatuta, atsaldeko bostetarako Shanchow edo Shenchow'ra eldu giñan. Emen izan da gure burni bi-
dearen azkena. Bear-bada, ez gera geyago gure bizitza guztian bultzian edo tre-
nan sartuko, ez degu ikusiko ere.

Atzo ta eranegun aitatu ditudan mixiolari italiñak berak artu gaituzte emen ere. Mixio etxe txikia daukate, ta gure oyak lufean zabalduta lo egin bear izan degu.

IGANDEAN ere emen gelditu giñan, astelenean gurditan abiatzeko azkeneko gertute edo pretaerak egiten.

AZAROA, 29, ASTELENA. Gaur sartu gera, Kansu'raño eramane bear gai-
tuzten gure gurditan. Ogei ta amazpi gurdi ditugu, bakoitza bi edo iru mando-
kin. Goazenok, bost kaputxin, «Societas Verbi Divini» koak bost, lekaime edo monjak bost, guri laguntzeko mofoyak lau, danetan emeretzí gera. Mandozayak, larogei ta bost edo amafen bat.

Bidetan eta efietan gu izan gera ikusgaririk aundiena, Gu agertu geran toki guztietan, ez ziran aspertzen guri begira jendeak.

Gaur Lingpau'raño eldu gera. Emen bizi dan alemaniar baten etxean apaldu genduan.

Bide gustian, gure mandoak eta gurdiak sartzeko, eta guk lo egiteko izan ditugun tokiai ez dakit nola deitu; nolabait ere deitu bear, eta *ostatu* deituko diet. Kansu'rako bidean, edozein efitan daude ostatu oyek.

Ostatu oyetan, erdian enparantza aundia izaten da, bertan gurdiak uzteko eta mandoak askatzeko. Enparantza inguruan, orko oloategien antzeko estalpe txiki batzuk (olakoak dira emengo etxeak). Estalpe oyetan ez dago ez sukaldarik, ez oyarik edo oatzerik, ez mayarik ez aulkirik, ezer ez. Bakaf bakarik, txinafak beti berekin daramaten oya lufean zabaltzeko tokia dago. Gañerantzean autsa eufez. Ez bai dago afizko edo karezko tabike ta ormarik, baizik dena luf utsezkoa.

Nai ta nai ez, burutik ankatarano autsez beteta ibili bear genduan.

Gabero, gure gurditik oya atera, estalpe oyetan zabaldu, gañean etzan eta lo. Goizean beñiro gure oya bildu ta gurdira,

Aparia egiteko sua atarian egiten genduen.

Mandazayak, gurdi bafuan, gurdi azpian edo edozein bazteretan lo egiten zuten.

TSINCHOW, ILBELTZAREN 16. IGANDEA.


(Jafaitzeko)

*P. Gregorius, o. m. cap.
miss. apost.*

*
**

Txinako gure misiolariak nolatan lagundu?


	<i>Pezeta</i>
1). Txinako aur bat erosi ta bataiatuz	10
2). Aur oietako bat ilabeteen elikatuz (mantenduz), .	20
3). Urte bateko jantzia emanez	40
4). Urte bateko jana emanez	150
5). Apaizgai bat elikatuz	500
6). Mixiolari bati bidaldia (viaje) ordainduz	5.500
7). Eskola bat goratuz	12.000
8). Mixio-etxe aundi bat bere eliza ta eskolakin . . .	25.000




IKASI!..IKASI!.,



1.—A zer sagar edefak...;



2.—Eta erdian dagon ibaia (ereka)...?



3.—Oñetakoak kentü ta... aufera



4.—Ur aundia ote dago...? Ta sagafak?



5.—Enau urak estaliko..,



6.—Beatz-mutuñakin sagafak ikutzean...ito.
Ariskua maite duanak, ariskuan ondatu.

Pedro Mari, Amerikanoa



OXE ANTON zan efiko sakristauaren seme zafena. Ofek bere zuurtasunari ta zuzentasunari eskefak, semeari eman zion lenengo ikasketak egin eta Iruña'ko Apaizgaitegian apaizetako ikasteko bidea. Filosofiazko irugafen urtea egiten ari zan, gutxi dakien bezin ondo.

Garagañilaren azken aldean etxeratu zan, bere gurasoakin opofaldiak igarotzera. Arte ortan ikusgafia zan bere biziera. Elizkizun guzietan lendabizikoa antxe zan. Bere mintzo (boza) zoliaz lenengo doñua egiten zuan gozaro. Añai

dotriña erakusten eta beste eliz-lan guzietan Apaizaren laguntzale utsik gabekoa zan. Afek paratzen zituan aña lenengoz Jauna artzeko ta baita eri gaxoi laguntzera ere joaten zan, elizakoak artzea on zen garai, tenorean, añazteko, alako estatusanean ikusten bazitun.

Baño ez uste izan Joxe Anton ofengatik etzela jostagura ta alaia. Aldameneko efietako Jai-buruetan antxe izaten zan urtero, ta iñork etzezaken esan gazte lotua zela, baño ain gutxi ergela zanik bere jostaldi atsegin eta gozatsuetan. Pilotan aski poleki aritzen zan, mutil-dantzan etzan iñor irabazten zionik; beti bazuan mutilak txoraturik idukitzen zituan abesti (kantu) ta doñu zafen bat ezpañetan. Bein baño geiagotan kondaira edo istoriaren befi ikasgafi ta nondinaiko bidarien eta ibilketari aundien gertaerak ematen zizkien eta bein batez baita Afrikan zeuden Napafoko soldaduentzat diru piskat ateratzeko biolin-soñua jo ere, efi guziaren afean.

Sakristauaren semeak ezagunak ainbat adiskide ba-zuan bere biotz eta izaera onari eskefak. Arengana jotzen zuen amak, etzeko biziera pake-tsutik soldadu arteko biziera afiskutsura eramane zion semeari idatzi (eskribitu) nai ziotenean. Artaz baliatu ziran efiko erostun txiki bat baño geiago, salketari aundien batek salgafi zalakatuak edo, bialtzen zizkionean. Eta sendalariak ere, bere sendatzaletako artu zuan, beren zendea alolako gaitzifizta bat bafatu zan batean.

Ark laguntzen zion Apaiz jaunari eguneroko bere ibilalditxoan. Bein intxaufondo baten itzalean exeri ziran. Bere muño gañean, aldameneko ilefi (kanposantu) aren gordailutzat jafia ematen zuan. Efiak zuzentzeko Apaizak izaten dituzten eragozpenaz itzegitera etofi ziran eta beste zenbait gertaera nasi ondoren, apaizgai on ari esan zion Apaizak orduan bertan «Amerikanoak» erlijioaren kaltetan ostatuan lagunen artean egiten zuan lana. Efitar aien artean, gizon aundizat artzen zala ori, efi aundietan bizitua, itsasoz beste aldean egona ta trenetan asko ibilia zalako ta ofetxengatik afean esan gaiztoak ezain-ezain kalte aundia ekafi zezakiela.

Apaizak zeuken miña zan, berak ara joan eta ezin erantzuna, ostatua ta ango lagunartea ez baitzan aren soñekoentzat ondo etortzen: «amerikanoak» befiz antxe egiten zuan bere lan galgafia. Alegiña egiten zuala igandeko itzaldietan aren agoa ixteko naikoa ziran erantzungafiak ematen, baño bear bada bereak etzituztela jasotzen. Eta jaso-ta ere, bear zan garai, tenorean, nork ixilduazi, astakirten afen betiko ardala usainduari erantzunez?

Joxe Antoneri irudi zitzaion, uraxe zala apaizgaitegian erlijioaz ikasitako gauzak adiraziz, erlijioaren alde aurpegia ateratzen asteko garaia; ta Apaizari esan zion zer gogoratzen zitzaion: «amerikanoa» ostatuan sartzen zala zekian aldioro, bera ere ara joatea, baño ez afeke ta ez beste aren lagunak sumatu gabe, zer asmotan joana izan zitekean.

Apaizak esan zion: Gizona, egun auetan orixe neukean nere gogoan, baño ez niñuan ausartzen iri esatera, bildur bai naiz, irabazi beafean galdu egingo ote degun ofekin.

—Jauna, Beofek bere laguntza ta bedeinkazioa ematen ba-dit, nik egin-go det lan ori, Jaungoikoak lagunduko nau ta.

—Zorionez, etsaia eztek buru geiegikoa, baño ba-dakik gero, alditan ateraldi paragafi batek ez-jakiñen artean geiago dezakela, egirik aundien eta argienak baño.

Jose Anton'ek erantzun zion: Eztegu bildurtu bear; Berofek badaki, Apaizgaitegian ez naizela lo egon. Filosofia oraintxe akitu det, bi urtez gaztetxoai erlijioz itzegiten aritu naiz eta nik uste ez «amerikanoak» eta beste ori baño erneago batek ere, ez nauela bereala estutuko, gure erlijioaren kaltezko tetelkeriak.

Apaiza pozik alako laguntza Jaungoikoak eskura jartzen ziolako, ta sakristauaren semea ere bai alako aukera ateratzen zitzaiolako erlijioaren alde kopeta ateratzeko, eguzkia ondo sartu ta gero etxeratu ziran. Efiaren lendabiziko etxan ufeneko lafañera irixtean, an zegoan mutil sail bati entzun zioten «amerikanoak» zer gauzak esaten zituan, afiturik. Aien arteko batek ordea, ofako eziera gabekoen arteko esanera ez ain egoki bat itz bakoitari erantsiz esan zuan:

—Nik etzekiat zer izango den, baño gizon ofek asko ikusi dik, Amerikan urte asko egin dizkik, ba-zirudik asko leitu dula ta eguneroko aundi guziak, ark esaten ditunak egiztutzen dituela esanez zegok. Azkenean egia izan zitekek.

—Aditu al du, Bernardo Jauna? esan zuan Joxe Antonek. Datofen igandean esango zaie nork dion egia.

Eta buruari bi aldetara eragiñez zijoa, afaundi naiez dagona bezala, Apaiztegiara iritxi artean.

—Biar arte, Joxe Anton, esanez aldegin zuan Apaizak.

—Biar arte, Bernardo Jauna.

LEGATE'KO ARTZAIA.

**Ilabete onen amalaugararen egunean meza bat emango da ZERUKO ARGIA-
GIAREN irakurle ta ongilen alde, Antonio Santuaren aldarean.**

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Iruña'ko Kaputxinotan.